

# Liburuak

KRITIKA

*Oscar eta Sebastian.*

Aitor Arana.

Kutxa. 232 orrialde. 10 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



## Arana eta Wilde

MAKURTUXE den urte honetako Irun Hiriko Kutxa Literatur Saria jaso du iradokigai dugun eleberr honek. Deusetan hasi baino lehenago, esan beharko genuke eskertzeko moduko edizioa duela lan honek, luze-zabal irakurterraza bilakatzen duen sepia kolorea eta hitz eta hutsuneen arteko oreka lagun.

Diseinua ez ezik, Aitor Arana idazle eta hizkuntzalariak, hizkuntzaren erabilpenean duen gaitasuna aipamenik gabe nekez utzi daitezke, are gutxiago, Oscar Wilde idazle handiaren bizitzaz duen ezagutza. Wilde jaio zenetik hil arteko zirrikituak ondo ezagutzen ditu Aranak: ezkontza, maitasunak, kartzela, heriotza, nortasuna... Eta ez hori bakarrik! Haren lanaren nondik norakoak aski ederki astintzen ditu, astintzen baditu ere: egindako ibilbide artistikoa, izan zituen maisu, lagun eta arerioak, literatur irizpideak.

Aranak itzuliak ditu dagoeneko Wilderen hainbat liburu, horien artean, *De Profundis* Txalapartak duela bi urte argitaratua. Liburu hau inflexio guinea bilakatzen da *Oscar eta Sebastian* liburuan, izan ere, *De Profundis*en Wildek kartzelatik, Lord Alfred Douglas, maitaleari idatzitako gutun garratza azaltzen baita. Eta min edo samin honetan errausten da nobelaren muina, Oscar izatetik Sebastian izatera pasatzeko mugarrira hortxe legoke eta. Homofobiak kartzelaratu zuen idazle handiaren ataka.

Eskuartearen duguna, zalantza izpirik gabe, Wilderen biografia dugu, baina ikuspuntuaren erabilerak narratzaile baten egokiera fortunatzen du. Narratzaile hau, Robert Ross, Oscar Wilderen lagun eta maitale ohia dugu. Berak sartuko gaitu Wilderen bizitza ardatz duen eleberr honetan.

Robert Rossek sarreran kontatzen digu, Oscar Wilde hil zenetik urteak pasatu direla eta beronen lehen biografiak argitaratzen ari direla, biografia asko; ordea, haren bizitza sexualaz bizpahiru lerro besterik ez dutela eskaintzen. Eta eleberr honetan kontalari gisa diharduen Rossek azpimarratzen digu Wilderen bizitzan sexualitateak, maitasunak eta horien defentsak, gutxienez denboraren erdia hartzen zutela.

Eleberrian zehar Wilde Oxforden ikasten ikusiko dugu, artearen jainkotzea aldarrikatzen, estetizismo izenez ezagututako mugimendura hurbiltzen. Oscar idazle ospetsu bezala ere ikusiko dugu. Baina, batez ere, literatur izarra izatetik kartzelaratu duen garaiari buruz ariko zaigu nobela. Panterak ezagutuko ditugu, gizonentzat ziharduten gizonezko prostituta profesionalak, eta batez ere, Alfred Douglas, Oscarren bizitza hondamendira eramanez. Wilde dugu, beraz, eleberr honetako Jainko gurutzefikatua, Douglas Judas, beti ere, Aranak bere nobelarako aukeratu duen Robert Ross narratzailearen esanetan. ■

## Liburu elektronikoaz Jakin berrian

Sakon heldu dio *Jakin* aldizkariak liburu elektronikoaren gaiari azkeneko zenbakian. Joan Mari Torrealdaiak zabaldu du aldizkari monografikoa, *Liburu unibertso digitalean. Liburu elektroniko* izeneko artikuluekin. Andoni Sagarna euskaltzainak e-book delakoen irakurgailuez eta

haietarako beren beregi prestatutako argitalpenez hitz egin du. Gainera, iritzibilketa egin dute sektoreko eragileen artean (Euskal Editoreen Elkarte, Gipuzkoako Liburu denden Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte...). Gai nagusi horrez gain, ohiko moduan, *Egunen gurgpilean* saila ere badakar *Jakinekin*. ■



**Jakin 173.**  
Batzuen artean.  
Jakin.  
136 orrialde.  
10,50 euro.

## Santiago Ezkerra Beltzaren oroimenez

Martxoan hil zen Santiago Ezkerra Beltza, *Lizarrusti* ezizenez ezaguna. Beraren lanak bildu ditu orain Andres Iñigok, Euskaltzaindiaren *Euskaltzainak* bildumako liburu honetan. Etxarri Aranazen jaioa 1925ean, gurasoak hil zitzaizkion haurra zela. Horregatik, 13 urterekin Altsasuko kaputxinoen ikastetxera jo zuen, fraide ikasteko. Euskaltzalea izan zen, eta idazlea: besteak beste, haren lanak argitaratu ziren *Zeruko ARGIAN*, *Goiz Argin* eta *Guaixen*; eliz gaien buruzko hiru liburu ere idatzi zituen. 1961ean ordena utzi eta Madrilera joan zen bizitzera. Han ezkondu zen, eta Heriok ere han hartu zuen. ■



**Santiago Ezkerra Beltza, Lizarrusti. Bizitza eta lanak.**  
Andres Iñigo (ed.).  
Euskaltzaindia.  
252 orrialde. 12 euro.